

Ez eta kito

Erretzea ez Da inoren Gustukoa

María Jesús Chacón Huertas

Romina Soto



Liburu hau GSKren babesari esker argitaratu da, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Arnastu Bizitza katedraren laguntzaz:



© 2019

Egilea: María Jesús Chacón Huertas

Ilustrazioak: Romina Soto

Testuaren zuzenketa: Dolores Sanmartín

<http://www.weeblebooks.com>

info@weeblebooks.com

Madril, Espainia, 2019ko malatza

Kodea: NP-ES-CPU-OGM-190017 (v2) 06/2023

Gardentasuna helburu, jakinarazten dizugu GSK-k argitalpen honen finantzaketan lagundu duela. Haren edukiak autoreen iritzia, irizpideak, ondorioak eta/edo berezko aurkikuntzak islatzen ditu, eta horiek ez dute zertan GSKrenekin bat etorri. GSK-k bere produktuak osasun-agintariek onartutako fitxa teknikoaren arabera erabiltzea gomendatzen du.

Con el reconocimiento y/o aval social de:



**Beren ideiei eusten
dieten gazte ausart
guztiei.**

Tabako-kontsumoa osasun publikoarekin lotutako kezka nagusietako bat bihurtu da.

Zergatik hasten dira erretzen gazteak? Zer dago ohitura horren atzean? Gazteek etorkizunean jasan ditzaketen arriskuak eta gaixotasunak ezagutzen al dituzte?

Gizarte onarpena da gazteak tabakoa erretzera erakartzen dituen lehen arrazoa. Arauei aurre egitea, lagunartearen presioa edo guraso erretzaileekin bizitzea dira beste arrazoiak batzuk.

Liburu honek nerabeen eta tabakoaren arteko hasierako harremanaren inguruan dihardu. Jolas baten modura hasten da, eta gero apurka-apurka haren mendea erortzen dira, erretzea egiazko mendekotasun bihurtzen den arte.

Baina, era berean, tabakismoaren atzaparretan erori beharrean, hari aurre egin eta lagunen alde borrokatzen diren gazte ausarten inguruan ere badihardu liburuak.

Gure gizartearen erronka da gazteak erretzen has daitezen ekiditea. Horretarako, lehendabizi beharrezkoa da haiei informazioa ematea, haien eredu bihurtzea eta, batez ere, gazteei ausartak izaten eta "EZ" esaten irakastea.

Lagunek eta nik oso gustuko genituen ostiral arratsaldeak. Zoragarria zen, eskola edo institutukoak amaituta, etxera itzultzeko premiarik gabe hortik osterata egitearen sentsazioa. Eguraldia lagun, gure eremu zaharrera joan ohi ginen bizikletan. Neguan, ezertarako gogorik ez genuen egun gris eta euritsuetan, Xabierren amonaren etxolan lasai egoten ginen. Orduan, film bat ikusten genuen edo bertako jolasen batean aritzen ginen.

Gutxitan huts egiten genion asteroko hitzordu hari, nahiz eta behin baino gehiagotan elkar haserretu. Hurrengo ostiralean, ordea, ezer gertatu izan ez balitz bezala elkartzeko ginen beti

Zazpi gara lagunartean: hiru mutil eta lau neska, DBHko hirugarren eta laugarren mailakoak guztiok. Betidanik elkar ezagutzen dugun arren, garai hartan bi urte generamatzen modu horretan elkarrekin ibiltzen.



Xabier da nire lagunik onena. Hitz urrikoa da, eta oso itxia bere kontuei dagokienez. Kosta egiten zaio bere mundua eta sentimenduak adieraztea. Nik, aldiz, oso gogoko dut hitz egitea; agian horregatik gara hain lagun minak. Denok biltzen garenean, entzutea nahiago izaten du. Ni ezin nau engainatu; izan ere, ikasturte hartan, eskolara itzuli ginenetik pixka bat arraro nabaritzen nuen. Berak ezetz bazioen ere, nik susmoa nuen Julene gustuko zuela oraindik.

Julene taldekiderik argiena da; ez du sekula ikasten eta, hala ere, nota onak ditu beti. Nire gurasoek diote egunen batean zortea agortuko zaiola. Gainera, pianoa jotzen du txikitatik. Iaz, ikasturte amaierako kontzertura gonbidatu gintuen, eta asko gustatu zitzaigun. Harrezkero, are gehiago miresten dugu. Berak, ordea, hainbesterako ez dela dio.

Egun hartan, azkenik lortu nuenean Xabierri zer gertatzen zitzaion galdetzea, Julenek bera horrela egotearekin batere zerikusirik ez zuela aitortu zidan.



—Ez da hori, Sergio, benetan. Jada ez dut gustuko. Egia esan, ez zait ezer gertatzen, ez pentsa. Zuk zerbait jakitea nahi nuen... uda honetan zehar pixka bat erre dut. Hori baino ez zen: zuri kontatu behar nizun. Horra berria! Ez esan inori, ados?

Aho zabalik geratu nintzen. Ezin nuen sinetsi. Xabierrek eta biok askotan hitz egin genuen tabakoari buruz, eta elkarri hitzeman genion inoiz ez gnuela erreko. Begietara zuzen so egin nion, eta hauxe esatera baino ez nintzen ausartu:

—Tira, badira gauza okerragoak.

Ostiraletan guztiaz hitz egiten genuen. Zenbaitetan beste lagun batzuk ere etortzen ziren, eta hori zoragarria zen, hizketagai gehiago izaten genituelako.

Arratsalde horietan barreak, arazo eta ilusioak eta, zergatik ez, gure erokeriak ere partekatzen genituen.



Urriaren hasierako ostiral bat, hiriko leku bazter batean

—Aurrera, neska-mutilok, iristeko gutxi falta zaigu-eta! —animatu nituen lagunak, pedalei eragiteari utzi gabe.

—Zu beti berdin, Sergio! Ez da egia, asko falta da oraindik, gezurti! —kexatu zen nire arreba, ohi bezala.

—Zu ez zara inoiz nekatzen! —erantzun zuen Karlosek, arnasestuka.



Egun hartakoa arratsalde bikaina zen eremura joateko. Eguraldi ona baliatuta, bizikletan ohi baino apur bat gehiago ibiltzeko konbentzitu nituen. Rakelek kexaka igaro zituen haraino iristeko behar izan genituen hogeita hamahiru minutuak. Nik, jada horretara ohituta nengoenez, ez nion kasu handirik egin.

Hara gindoazen hirugarren aldia zen ikasturte hartan. Udan gertatutakoak eta eskola eta institutuko berriak elkarri kontatzen ari ginen oraindik. Xabierrek herriko jaietan zein ondo pasatu zuen kontatu zigun. Karlos, taldeko xelebreena eta parrandazaleena, irakasle zorrotzenak tokatu zitzaizkiola kexatu zen. Horregatik, zin egin zigun aurten pixka bat gehiago ikasiko zuela. Miren, Ruten lagunik onena, Karlosi behin eta berriz esaka hasi zitzaion zorte handia zuela halako gurasoak izanda, bereak beti gainean zituelako eta une oro kontrolatzen zutelako. Mutil guztiek gogoko dute Rut, baina berari ez zaio haietako bakar bat ere gustatzen. Rutek margotzea maite du. Julene kexuka ari zen kontserbatorioan Hizkuntza Musikaleko irakaslerik okerrera egokitu zitzaiola-eta. Rakelek eta biok kontatu genien gure herriko lagunetako asko dagoeneko erretzen hasiak zirela.

Baita duela hiru urte osaba Andoni tabakoaren ondorioz hil zitzaigula ere.

Ohartu nintzen Karlosek eta Mirenek elkarri disimuluz begiratzen ziotela.



Orduan, Karlosek egoera hura baliatu zuen eskua poltsikoan sartu eta bertatik zigarreta bat ateratzeko. Mirenek pizgailua eskaini zion. Lasai piztu zuen eta, hari atxiki batzuk eman eta gero, ondokoa kontatzen hasi zitzaigun:

—Ikusten duzueenez, lagunok, Mirenek eta biok ere erretzen dugu. Tira, egia esan, nik zertxobait gehiago erretzen dut, zigarretaren bat edo beste noizbehinka. Hori ez da erretzea ere! Bagenekienez batere gustuko ez duzuela, orain arte ez dugu zuen aurrean erre.

—Nik oso gutxitan erretzen dut. Udan zigarreta bat eskaini zidaten kanpinean eta, noski, ezin izan nion uko egin. Gainera, pixka bat lasaitzen nauela ere nabaritu dut —zuritu zuen bere burua Mirenek lagunon aurrean.

—Atxiki bat eman nahi al diozue? —galdetu zuen Karlosek.

—EZ —erantzun nion, haserre.

—Ez dakit zergatik ez duzun probatzen, Sergio, ez da ezer gertatzen eta —ekin zion berriz.

—**EZ eta kito!** —erantzun nion berriro—. Gainera, ez dizut zertan inolako azalpenik eman.

—Zuretzat okerrago. Erretzea zoragarria da! Ez da hala, Miren?



Julenek, Rutek, Rakelek eta Xabierrek ezetz egin zuten buruaz. Xabier, egoeragatik deseroso, pixka bat gorritu zen.

Nire ezetz biribilak eta gure arteko giroa berotzen zuen ke desatseginak arratsaldea hondatu ziguten. Une hartan, arrebak nire alde egin zuen:

—Pentsatzen dut jakingo duzuela zuen ke gaiztoaz guztiok kutsatzen gaituzuela, ezta? Arazoa ez da zuek erretzea, baizik eta guztiok ari garela erretzen. Kanporatzen duzuen keaz kutsatzen gaituzue.

—Bai gehiegikeria, neska! —esan zuen Mirenek, sinesgogor.

—Ez, Miren, ez nabil gehiegikeriatan. Benetan ari naiz. Medikuari entzun nion osaba Andoniri hori esaten. Tabakoaren keak kutsatutako airea erretzaileak berak arnasten duena baino okerragoa dela azaldu zion. Hala, ingurukoei kalte egiten ziela adieraziz, hura konbentzitzen saiatu zen erretzeari utz ziezaion. Azkenean lortu ere egin zuen, baina ordurako beranduegi zen...

—Tira, tira.. ez dakit, bada... ez dut uste hain larria denik —zalantza egin zuen Karlosek.

Karlosek eta Mirenek esan ziguten kontu horri hainbeste garrantzirik ez emateko, ez zutela tabakoarekiko mendekotasunik eta nahi izan bezain laster utz zezaketela. Eta haiek arazoari garrantzirik eman ez ziotenez, geuk ere halaxe jokatzearabaki genuen.

Harrezkeroztik, tabakoa, zigarretak eta kea ohikoak bihurtu ziren ostiral arratsaldeetan. Lagunartera batu eta kide bat gehiago ziren ordurako, baita gure hizketagai finkoetako bat ere, zoritxarrez.



Urtarrilaren hasierako ostiral bat, amonaren etxolan

—Nire aitonak bizitza osoan zehar erre egin zuen, eta laurogeita hamar urtera arte bizi izan zen — esan zuen Rutek, harro—. Eta badakizue nire aitak ere betidanik erretzen duela. Eztulka ari da beti, eta katarroren bat edo beste harrapatzen du noizean behin. Ezer larririk ez, haren esanetan. Amarekin paseoan doanean arnastea kosta egiten zaiola aitortu dit, ordea. Nire neba nagusia duela hiru urte hasi zen erretzen. Pakete bat erosten du egunero. Dioenez, ez ditu guzti-guztiak berak erretzen, lagunen artean banatzen omen ditu. Beraz, erretzen ez dugun etxeko bakarrak ama eta biok gara. Ezetz asmatu nor doan sarrien medikuarenera?

—Nor izango da, ba? Argi dago-eta! Zure aita! —erantzun zuen Julenek berehala.

—Ez, ba! Azkenaldian nire ama da etengabe medikuarenera doana. Eta erretzen ez duen bakarra da!

—Agian sanoagoa da erretzea, kar-kar-kar — barre egin zuen Karlosek, burlati.

Haren hitzak batere gustatu ez zitzaizkigula ikusita, hauxe erantsi zuen:

—Ez zaitezte haserretu, lagunok. Horiek aurpegiak. Txantxa bat baino ez zen!



Xabier, solasean hainbat aldiz parte hartzeko zorian egon ondoren, hau esaten ausartu zen:

—Baliteke zure ama medikura hainbestetan joatea zure aitak egun osoa erretzen igarotzen duelako, ez zaizu iruditzen? Rakelek aipatu duen aire kutsatuaren erruz.

—Egia da, hala izan daiteke —berretsi zuen Julenek.

Rutek, Xabierren hitzengatik haserre, erantzun zion:

—Nola joango da medikuarenera horregatik? Nekeak jota dago. Adinaren ajeak dira, besterik ez. Bai azalpen xelebreak zureak, Xabier...

Hizketaldiak zigarreta bat pizteko gogoa ekarri zion Karlosi. Kontatu zigunez, erretzen zuenetik garrantzitsuagoa zela sentitzen zuen, erakargarriagoa. Eta, hala, gehiago ligatzen zuen.

—Ziur zaude gehiago ligatzen duzula? Nik ez nuke erretzen duen mutil lagunik izango sekula. Erretzaileek hats gaiztoa dute, hori nazka! Gainera, pakete bat hain garestia izanda, nahiago dut zinemara joan, adibidez.

Karlosek, Juleneren hitzei entzungor eginez, tonu ironikoan esan zuen:

—Zigarreta bat erdibana, Miren? Badakizu, medikuarenera joan behar ez izateko, kar-kar-kar.

—Ados, atxiki bat eman nahi al dio inork?

Rut tentaldian erortzeko zorian egona zen hainbat aldiz, eta amore eman zuen oraingoan.

—Aurrera, ba; baina behin baino ez.

Mirenek azaldu zion zer egin kea kontrako eztarritik sar ez zekion. Orduan, Rut haserretu egin zen.



—Aizu, bizitza osoa daramat aita erretzen ikusten, badakit zer egin behar dudan.

Karlosek eman zion lehen atxikia zigarretari, gero Mireni pasatu zion, eta, azkenik, Ruti.

Harengan pausatu genuen begirada. Guri erretzea zein erraza zen erakutsi nahian, hain atxiki sakona eman zion, kea kontrako eztarritik joan baitzitzaion eta bizkarrean zapladatxo batzuk eman behar izan baikenizkion eztul egiteari utz ziezaion. Denok barre egin genuen Ruten aurpegia ikusita.

—Ez da hain erraza, ez. Kof-kof-kof. Praktika kontua izango da
—esan zuen.

Hala igaro genuen ikasturtea, eremu eta etxola artean, uda iritsi zen arte. Udan, hiru hilabetez elkar ikusteari uztea izaten da okerrera. Hasieran elkartzen saiatzen gara, baina oso gutxitan lortzen dugu. Gero, saiatzeaz aspertuta, desagertu egiten gara, irailean eskolara edo institutura itzuli arte.



Urriaren hasierako ostiral bat, hiriko leku bazter berean

—Ene, ez dakit iristea lortuko dudan! Badirudi ikasturte honetan eremua urrunago dagoela, ezta? —kexatu zen Rakel, neka-neka eginda pedalei eragiteaz.

—Oso gutxi geratzen zaigu. Aurrera, kexati! —animatu nuen arreba.

Arreba eta biok lagunarte berekoak izateak baditu abantailak, baita desabantailak ere. Nik oso gustuko dut kirola egitea; berak, ordea, ez hainbeste. Horregatik, kexatu egiten da, eta biok eztabaidan hasten gara ia beti. Hori albo batera utzita, harreman ona dugu, azken batean nire arreba on puska delako.

Ikasturte hura abiatu zenetik, bi aldiz baino ez ginen joan eremura. Eta aurreko urtean baino azkarrago eman genion elkarri udan zehar gertatu zitzaizkigun berri. Gauza gutxiago kontatu genizkion elkarri, ez baitago zenbait gauza kontatu beharrik.

Karlosek eta Mirenek noizean behin erretzeari utzi zioten. Egunero erretzen hasi ziren. Rutek, aldiz, aldizka erretzeari ekin zion. Beraz, hiru ziren jadanik taldeko erretzaileak... Tira, egiatan lau, nik ondo nekienez.



Rutek eta Mirenek zigarreta bat partekatzen zuten bitartean, Karlos bereaz gozatzen ari zen. Atxiki artean kontatu zigun nola hasi zen erretzen.

—Eskubaloiko lagunek gonbidatu ninduten jai hartan izan zen, gogoratzen duzue? Duela bi urte inguru. Ia denek erretzen zuten, eta ez nuen nahi bazter nintzaten, beraz, hainbat atxiki eman nizkion lehen zigarreta hari. Erretzea hain txarra ez dela, jende askok erretzen duela eta ez dela ezer gertatzen esanez konbentzitu ninduten. Ez dakit orain tabakoa uzteko gai izango nintzatekeen, haren mende erori naizela uste dut. Nire gurasoek ez dakite ezer, oraindik ez naute harrapatu. Haiek ez dute sekula erretzen, nire familiako gainerakoek bezala.



Esandakoan pentsatu zuen une batez, eta bere hitzak zuzendu zituen:

—Hara! Osaba Jonek erre egiten du, bai. Azkenaldian hainbat aldiz ospitaleratu behar izan dute. Bi pakete erretzen ditu egunero, beraz, pentsatzen dut normala dela. Txikitatik gogoratzen dut zigarreta bat hatz artean duela. Ohiko bosten ordeztu, jaiotzetik sei atzamar balitu bezala!

Barreen oihartzuna eremuan barrena zabaltzen zen.

—Honi buruz ari garela, oroitzen zarete gure osaba tabakoaren erruz hil zela kontatu genizuela? — galdetu zuen Rakelek.

—Bai, bai.

—Bada, izeba Margari, haren emaztea, maiz doa medikuarenera azken aldia, arnasteko arazoak dituelako eta asko nekatzen delako; zure amaren moduan, Rut. Eta berak ere ez du inoiz erre. Nire osaba Andonik bi tabako pakete erretzen zituen egunero, zure osaba Jonek bezala, Karlos.



Harengan pentsatzen dudanean, zigarreten lainopean gogoratzen dut, bere etxeko sukaldean, sekula erretzeari utzi gabe. Oroitzen zara, Sergio? Izebak laster ospitalera joan behar zuela esan zidan atzo. Ahal badut, berarekin joatea gustatuko litzaidake.

—Ados, modu horretan ikusiko duzu nola gertatzen zaionak ez duen batere zerikusirik tabakoarekin. Eta, bide batez, neu ere lasaiago geldituko naiz nire amari dagokionez.

—Hala izatea nahi nuke, baina uste dut oker zabiltzala, Rut.

Xabierrek, Karlosi erretzen hasi zen egunaren inguruko azalpena entzun ondoren, galdetu zion:

—Eta zer egingo zenuke gurasoek harrapatuko bazintuzte?

—Ene, Xabier, gutxi hitz egiten duzu, baina ahoa zabalduz gero... kar-kar-kar —erantzun zion Karlosek, barregarriro—. Zer egingo dut, ba? Argi dago! Ezkutuan erretzen jarraitu. Gainera, debekatuko balidate, are zirraragarriagoa litzateke, ezta? Hala ere, ez dut uste harrapatuko nautenik, ia ez baititut ikusten...



Hamar minutu baino gutxiago igaro ziren Karlosek zigarreta hura amaitu eta hurrengoa piztu zuen arte. Atxiki bat eman ondoren, Ruti pasatu zion, eta hark guri eskaini zigun:

—Atxiki bat eman nahi al dio inork?

—EZETZ! —erantzun genion Xabierrek, Julenek, Rakelek eta laurok.

Ez genien eman guri horren zergatia galdetzeko aukerarik. Elkarri begiratu genion, isilean hiru arte zenbatu genuen eta oihu egin genuen:

—**EZ eta kito!**



Ruti dagoeneko ez zitzaion kea kontrako eztarritik sartzen. Modan zeuden telesaioetako aktoreen dotoreziaz eusten zion zigarretari. Kea astiro-astiro kanporatzen zuen. Harekin batera, Miren eta Karlos ere erretzen ari ziren, noski. Zigarretari hainbat atxiki eman ondoren, haxe kontatu zigun:


—Atzo, nire ama medikuarenera joan zen berriz, neka-neka eginda dagoelako beti. Orain, gainera, ez tul gaiztoa du... Osasun-zentroko medikuak ospitaleko espezialistarenera bidali zuen, etxean berak izan ezik guztiok erretzen dugula kontatu ziolako. Hori jakitean, medikua espantuka hasi zen. Esan zionez, etxeko txoko guztietan kea izanik, normala da hala egotea. Gainera, amak etxetik lan egiten du, eta ia ez da kalera irteten. Aita lehenbailehen kontsultara joan dadin konbentzitzeko eskatu zion.

—Ez nau harritzen zure ama gaixo sentitzeak, zu jasaterik ez dago-eta —kommentatu zuen Karlosek.

—Ez da batere barregarria!

—Bada, ez zaitut beldurtu nahi, Rut, baina osaba Andoni eta izeba Margari ekarri dizkidazu gogora —adierazi nion.

—Orduan, zure etxean denek dakite erretzen duzula eta, hala ere, ezer gertatuko ez balitz bezala jokutzen dute, ezta? Zelako zortea! —
e s a n z u e n M i r e n e k ,
bekaizti.






Rut pentsakor gelditu zen, nik osaba-izebei buruz esandakoaren inguruan hausnartzen, baina ez zuen besterik erantsi. Horren ordeztu, nahiago izan zuen Mireni erantzun.

—Nahi duzunean, nire etxera etorri eta lasai-lasai erre ahalko dugu. Ikusiko duzu zein atsegina den inoren ezkutuan ibili behar ez izatea. Nire azken marrazkiak erakutsiko dizkizut, bai? Eta gero film bat ikus dezakegu, gogorik baduzu...

—Ados! —oihu egin zuen Mirenek, poz-pozik Ruten proposamenagatik—. Udan erretzen harrapatu nindutenetik, gurasoek erabat gogaituta naukate. Aurreko egunean, lankideen tabako pakete ugariarekin agertu ziren etxean eta, lau urteko neskatila banintz bezala, haietan idatzitakoa irakurtzen hasi zitzaizkidan: Erretzeak hil egiten du; Erretzeak birikei kalte egiten die; Tabakoaren kea kaltegarria da zure seme-alaba, senide eta lagunentzat; Erretzeak itsu geratzeko aukerak handitzen ditu...



—Nik, egia esan, ez dut... ez dut ulertzen zergatik erretzen duzuen —adierazi zien nire arrebak.

—Zergatik erretzen dugun? Ni, adibidez, bazkaldu ondoren edo azterketak direla-eta urduri nagoenean zigarreta bat erretzeak lasaitu egiten nau, Mireni gertatzen zaion bezala. Uste dut kontzentratzen ere laguntzen didala.

—Hori diote erretzaile profesionalek, Rut, erretzeak lasaitu egiten dituela. Zorionak! —aurpegiratu zion Rakelek.

—Tabakoa zure gurasoek dioten bezain kaltegarria balitz, Miren, ez leudeke erretzea ontzat hartzen den hainbeste film edota telesaio, ez zaizu iruditzen? —aurre egin zion Karlosek.

—Hori da, hori da —egin zuen haren alde Rutek.





—Nire gurasoek diote tabakoaren nikotinak beste droga batzuek baino are mendekotasun handiagoa eragiten duela —jakinarazi zien Mirenek.

—Hori gehiegikeria hutsa da, ez dut sinesten! —esan zuen Karlosek, harroputz—. Osaba Jonek, hortzak zeharo horituta izateaz gain, azala oso zimurtua du. Nire aitaren adin berekoa da, baina hamar urte zaharragoa dirudi. Haren esanetan, ez du usaimenik ez dastamenik, hau da, ez ditu usainak eta zaporeak bereizten. Eta, filmei buruz ari garela, bera ez da aktorea, baina, tira, orain gutxi lan egiten du, maiz ospitaleratzen baitute.

—Ziur hori guztia tabakoaren ondorio dela. Hortz horixkena ezagutzen ditugun kalteetako bat da soilik. Erretzeak hainbeste ondorio txar ditu... —esan zuen Julenek.



—Ideia bat bururatu zait! Nire osaba medikua da, eta ospitalean lan egiten du. Arratsalderen batean harekin gera gintezkeen galdetuko diot. Era horretan, nahi beste galdera egin ahalko dizkiogu. Zer deritzozue?

—Ez da batere ideia txarra, Julene —iritzi zion Rutek.

—Ados, ondo da —esan zuten Karlosek eta Mirenek aho batez.

—Bikain! Berarekin hitz egingo dut.

Zer ideia ona izan zuen Julenek! Istant batez, egunen batean nire lagunak erretzeari utziko ziotela pentsatu nuen. Filmetan beti diote ametsak bete egiten direla, ezta?





Arratsalde hartan elkarri agur esan genionean, Xabierrek galdetu zidan tarte batez nire etxera etor zitekeen. Baietz erantzun nion, noski.

Xabierrek ezkutuan pixka bat erretzen jarraitzen zuen. Inork ez zekien erretzen zuela, eta berak ez zuen inork jakiterik nahi. Hori ondo zegoela iruditzen zitzaidan. Nik, behintzat, sekretua gorde nion, arrebari ere ez nion kontatu.

—Lehen, Karlosek osaba Joni buruz hitz egin duenean, azal zimurtuaren kontuak jakin-mina piztu dit. Erretzeak zahartzen al du? Zer uste duzu, Sergio?

—Bada, argitu dezagun... Zer deritzozu Interneten bilatzen

badugu?

—Ederki!

Pizza batzuk berotu genituen eta nire logelan giltzapetu ginen ordenagailu eramangarriarekin. Nire osaba Karlos Interneten aditua da, eta informazio fidagarria eskaintzen zuten konfiantzazko zenbait webgune gomendatu zizkigun. Tabakoari buruz zenbat eta gehiago irakurri, orduan eta atsekabetuago eta haserreago geunden...



—Begira, Sergio, irakurri hau, egia da Mirenek esandakoa!

Tabakismoa mendekotasuna eragiten duen gaixotasun bat da. Tabakoa heroinak edo kokainak baino mendekotasun handiagoa eragiten duen droga bat da.

Irakurtzen jarraitu genuen:

Bada nahiko ezezaguna den gaixotasun bat: BGBK deritzo. Pertsona askok pairatzen dute, medikuak diagnostikatu ez badie ere. Tabakoaren kea arnastea da BGBKren arrazoi nagusia, eta erretzaile aktiboek zein pasiboek jasan dezakete. Eboluzio motela du gaixotasunak. Sintomarik ohikoenetako bat disnea da, hots, arnasteko zailtasunak eta eztul kronikoa.



Hori irakurri ondoren, Xabierrek eta biok izututa begiratu genion elkarri. Orduan ulertu genuen dena. Imajina genezake izeba Margariri gertatzen zitzaiona, baita zergatik zihoan Ruten ama etengabe medikuarenera.

Tabakoaren keak 4.000 substantzia kimikotik gora ditu; haietatik, 50 inguru minbizia eragin dezakete, edo bihotzeko gaixotasunak... Horrez gain, tabakoak azala zimurtzen du, hortzak eta azazkalak zikintzen ditu, usaimena eta dastamena galtzea eragiten du...

—Ene, zahartzen duela ere egia da. Bazenekien hori, Sergio?

—Ideiarik ere ez nuen.

Xabierrek ordenagailu eramangarriaren pantailara begiratzeari utzi zion eta, zalantza egin gabe, hau esan zidan:

—Amaitu da! Ez dut zigarreta bakar bat ere gehiago erreko. Banekien kaltegarria zela, baina hori baino askoz okerragoa da. Hortaz...

Moztu egin nion, ilusio handia egiten zidalako biok batera esateak. Banekien une hartatik aurrera Xabier ez zela sekula berriz gorrituko. Hala, irribarre zabal batekin, biok oihu egin genuen:


—EZ eta kito!



Hurrengo ostiralean lagunei dena kontatzea erabaki genuen, kasu handirik egingo ez zigutelako uste osoa izan arren.

Denbora azkar-azkar igaro zen. Xabierrek etxera joan beharra zuen. BGBKri buruz irakurri genuen azken informazioak zinez hunkitu gintuen.

Gaur egun, gaixotasunak maila berean eragiten die gizon eta emakumeei. 2030ean hirugarren heriotza-arrazoia izango da, eta muga gehien eragingo dituen gaixotasunetako bat.



Urtarrilaren hasierako ostiral bat, amonaren etxolan

—Zerbait bitxia entzun nahi al duzue? Aurreko egunean, gurasoek kontatu zidaten txikiak ginenean leku guztietan erre zitekeela, baina gero Tabakoaren Aurkako Legea ezarri zutela. Haren bidez, ordura arte baimenduta zegoen toki askotan erretzea debekatu zuten: lanean, tabernetan, museoetan...

—Hara! Itzela litzateke leku horietan erretzea! Ene, Miren, zure gurasoei esker egunean zaude beti, e? Eska iezaiezu astelehenean dugun Matematikako azterketaren galderak esateko, kar-kar-kar —barre egin zuen Karlosek, ironiaz—. Niri ez litzaidake axola izango gurasoek halako gauzak kontatuko balizkidate. Ez daude inoiz etxean. Astean zehar lanean egoten dira beti, eta asteburuan lagunekin irteten dira hortik. Beraz, nola harrapatuko naute erretzen? Ia ez naute ikusten-eta!



—Ez pentsa, gogaituta nago. Nire aitona-amonen etxean ere aipatu zuten tabakoak eragiten duen gaixotasun bitxi hura... BGBK edo antzeko zerbait, ezta? —zalantza egin zuen Mirenek.

—Biriketako... zer? —galdetu zion Julenek, harrituta.

—BGBK —baieztatu zuen Rakelek—. Ez zeunden nire nebak eta Xabierrek hartaz hitz egin ziguten egunean, Julene; horregatik, izena ez zaizu ezagun egiten. Begira, nik azalduko dizut: BGBK arnas gaixotasun kroniko bat da, erretzearen ondorioz pertsoneri apurka-apurka kalte handia egiten diena. Hori ez da okerrera, ordea; larriena da gaixotasun horrek erretzaileekin bizi diren pertsonak ere hil ditzakeela, haiek erretzen ez badute ere.





Rutek asteak zeramatzan pixka bat arraro. Ez zuen asko hitz egiten, eta bitxiena zen gutxi erretzen ari zela. Ez zitzaion batere gustatu nire arrebak egindako laburpena. Luzaroan eutsi zuen, gehiago ezin izan zuen arte. Negarrez hasi zen eta, hari amorruez zuzenduz, oihu egin zuen:

—Ez ditu erretzen ez duten pertsonak hiltzen, Rakel, ez ditu hiltzen!

Zer esan ez genekiela gelditu ginen. Ez genuen Rakel sekula horrela ikusi. Mirenek estu besarkatu zuen, hura lasaitu nahian. Baretu zenean, komentatu zigun gurasoei hurrengo ostegunean jakinaraziko zizkietela azterketen emaitzak eta bera oso urduri zegoela.

—Zelako kasualitatea, Rut! Ni ere datorren astean joango naiz izebarekin pneumologora, biriken espezialistarenera. Espirometria izeneko proba bat egingo diote —esan zuen Rakelek.

—Zer da hori? Zertarako balio du? —galdetu zion Julenek, jakin-minez.

—Bada, izebak azaldu dit oso proba sinplea dela, eta hamar minutu inguru irauten duela. Birikak ahalik eta aire kopuru handienaz bete eta, jarraian, aire hori hodi batean ahal bezain azkar eta indartsu kanporatzean datza. Hala, pertsona horren birikek behar adina aire har dezaketen egiaztatzen dute. Proba horren bidez diagnostikatzen dute BGBK.

Julenek, kontuari garrantzia kendu nahian, esan zuen:

—Behintzat, ez da mingarria, ezta?

Denok disimulatu genuen gure urduritasuna. Egiatan, oso beldurtuta geunden gerta zitekeenagatik. Arratsalde hura gehien maite genuen jolasean aritu ginen. Era horretan, Rut lasaitzea lortu genuen, eta egoeraz pixka bat ahaztu ginen guztiok.

Egun hartako onena izan zen, aspaldiko partez lehen aldiz, beste ostiral batzuetan baino tabako-ke gutxiago arnastuta itzuli ginela etxera. Karlosek hiru zigarreta erre zituen; Mirenek, bi, eta Rutek, bat baino ez.



Urtarrilaren erdialdeko ostegun bat, ospitalean

—Ezin dut sinetsi, Rut! —oihu egin zuen Rakelek.

Nire arreba Margari izebarekin kontsultatik irteten ari zela, hortxe egin zuen topo Rutekin, itxarongelan zain zegoena gurasoekin.

—Gaurko eguna eta pneumologo bera! Hau kointzidentzia!

—Nola joan da? Dena ondo? —galdetu zigun Rutek, izututa.

Ruten gurasoek eta nire izebak elkar ezagutzen ez zuten arren, nire izebak, oso berriak direnez, berehala kontatu zien guztia:

—Bada, espirometria egin didate eta, bai, Sebastian doktoreak esan dit BGBK dudala, baina tratamenduari esker hobera egingo dudala eta ez naizela hainbeste nekatuko.

Hasteko, inhalagailua bidali dit. Ikusiko dugu aurrerago.

Begira zelako herentzia utzi didan senarrak!





Hizketan jarraitzeko asmoa zuen, baina atea ireki zen eta erizainak hurrengo pazienteei dei egin zien. Rut eta haren gurasoak azkar-azkar sartu ziren. Nire arrebak kontsultatik irten arte bertan itxarotea proposatu zion izebari. Eta hark onartu egin zuen.

Berrogeita hiru minutu amaigabe igaro ziren atea berriz ireki zen arte. Ruten aurpegia ikustean, nire arrebak okerrena imajinatu zuen. Rut ez zen ohartu bertan zeudenik ere, beraien zain. Haren aita burumakur zegoen, oso serio eta erruduntasun-sentipen agerikoaz. Ruten amari gerritik heltzen zion, maitekiro. Haren ama oso zurbil zegoen, eta bi mukizapiri eusten zien eskuan, malkoz eta amets hautsiz beterikoak. Rutek begiak gorrituta zituen eta, amorru biziz eta entzun berri zuena onartu ezinik, eskailerak korrika jaisteko prest zegoen. Orduan, nire arrebak dei egin zion:

—Rut, hementxe nago, zure zain. Esadazu, zer gertatu da?

Rut, hitz erdirik ere ahoskatu gabe, negarrez hasi zen nahigabe handiz. Luze besarkatu zuten elkar, biak negar batean. Azkenik, hitz egitea lortu zuenean, ahots etenez esan zion:


—Ez dago eskubiderik! Aitak BGBK du oso fase aurreratuan, eta amak hainbeste ke arnastu du, biriketako minbizia baitu!

Nire arreba mutu gelditu zen, zer esan ez zekiela. Hiru hitz hauek baino ez zitzaizkion bururatu:

—Sentitzen dut, Rut.

Eta Rut eskaileretan behera abiatu zen korrika, gurasoekin biltzeko.





Biharamunean, Rut ez zen agertu amonaren etxolan. Denok oso kezkatuta geunden harengatik.

—Bide batez, osabak esan dit datorren ostiralean ospitalera joan gaitezkeela. Berak zaintza du, eta haren lagun pneumologo bat, Sebastian doktorea, arratsaldean bertan izango da. Ez dakit Rutek ere etorri nahiko duen...

—Sebastian doktorea nire izebaren eta Ruten gurasoen pneumologoa da! Oso jatorra da! —esan zuen nire arrebak—. Bai kasualitatea! Horrela, ez gara hainbeste lotsatuko galderak egin behar dizkiogunean, ezta?

Karlosek eta Mirenek ez zuten ordurako lehen bezainbeste erretzen. Argi zegoen Rut etxean bizitzen ari zenak eragin ziela. Sebastian doktorearenera joan nahi zuten eta, aldi berean, ez zuten hark esango ziena entzun nahi...

Urtarrilaren amaierako ostiral bat, ospitalean

Bostak bost gutxi zirela iritsi ginen ospitalera. Bostetan ate aurrean geratuak ginen Juleneren osabarekin. Rut baino ez zen falta. Juleneren osaba garaiz agertu zen eta, denok sartzerantz gindoazela, Rut ikusi genuen urrunean.

Bigarren solairura igo ginen, bertan baitzegoen Sebastian doktorea. Juleneren osabak aurkeztu zigun. Nire arreba eta Rut gogoratzen zituen; bereziki. BGBKz ezer al genekien jakin nahi Haren berri genuela ikusita, galdetu zigun:

—Zuetako nortzuek erretzen duzue?

Karlosek, Mirenek eta Rutek erantzun zuten.

—Nik dezente erretzen nuen, bai, baina azkenaldian gutxiago.

—Nik ere gutxiago erretzen dut orain.

—Nik utzi nahi nuke, baina asko kostatzen ari zait, ezin dut.

—Jakina utz dezakezula, Rut! Lortuko duzu, horretarako borondatea izanez gero: horixe da erretzeari uzteko lehen urratsa —animatu zuen Sebastian doktoreak.


e g i n
R u t ,
izan zuen.



—Neska-mutilok, ideia bat bururatu zait. Zer iruditzen zaizue, lehendabizi niri galderak egin beharrean, horiek geroko uzten baditugu? Ondo baderitzozue, solairu honetan dauden BGBKk jotako gaixoak bisita ditzakegu, eta ondoren zalantza guztiak galdetu ahalko dizkidazue.

Guztioi ondo irudituta zitzaigun haren proposamena, beraz, ospitaleko bigarren solairuan barrena ibiltzen hasi ginen. Bertan, arnas gutxiegitasuna pairatzen zuten gaixo gehienek BGBK zuten.

Isilean egin genuen aurrera korridore luzean zehar, doktorea bat-batean gelditu zen arte. Oxigenoa eta maskara bat zintzilik zituen gurgil-aulki bat zegoen. Doktoreak esan zuen:



—Zu, Karlos, eser zaitez aulki honetan. BGBKk jotako paziente bazina bezala egingo duzu bisita, ados?

Karlosi ideiak ez zion grazia egin, baina amore eman zuen eta gurpil-aulkian eseri zen, oxigeno-maskara jarrita. Julenek eraman zuen. Soilik paziente bisitatu genituen arren, hura gaixotasun larria zela eta gaixoei egunerokoan zailtasun handiak eragiten zizkiela ulertzeko nahikoa izan zen. Gaixoetako batek kontatu zigun kalera ateratzearen beldur zela itolarria sentitzen zuelako, arnasteko behar zuen oxigenoa agortuko balitzaio bezala. Beste batzuek ergelak ez izateko eta inoiz ez erretzeko esan ziguten, erretzaile bat gaixotzen denean, harekin batera familia osoa gaixotzen delako.

Nik ez nion Karlosi begirik kentzen. Ospitaleko horma zuriak baino zurbilago zegoen. Ez zuen hitz bakar bat ere esan bigarren solairuan barrenako bisitak iraun zuen berrogeita bost minutuan zehar.

**Triste gelditu ginen, zeharo harrituta eta erabat mutu...
Sebastian doktoreak zalantzarik ote genuen galdetu zigun.
Gutako inork ez zuenez hitz egiteko gogorik, guztion
izenean mintzatu nintzaion:**





—Ez dugu inolako galderarik, doktore. Jakingo duzunez, irudi bakar bat hamaika hitz baino argigarriagoa izan daiteke. Halaxe gaude... zer esan ez dakigula. Eskerrik asko BGBK hain hurbiletik ezagutarazteagatik.

—Ez dago zergatik, neska-mutilok! Plazera izan da. Espero dut zerbait ikasi izana. Bazenekiten “Zigarretaren mendea” esaten diotela XX. mendeari? Nahiko nuke XXI. mendea etorkizunean “Zigarretarik gabeko mendea” izendatzea. Amaitzeko, zerbait esango dizuet: bizitza osoa duzue aurrean; mesedez, ez utzi tabakoak amesten duzen bizitza zapuztu diezazuen.

—Milesker, Sebastian doktorea —erantzun genion, esker onez.

Hari eta Juleneren osabari agur esan genien. Ospitaletik irten ginenean, handik hurbil, Karlosek eskubaloiko bi lagunekin topo egin zuen.

Biak erretzen ari ziren. Karlosek erretzen ez egoteak harritu zituen, beraz, haietako batek galdetu zion:

—Zigarreta bat nahi al duzu?

Denok adi-adi geunden, Karlosen erantzunaren zain. Orduan, hala erantzun zuen:

—Ez!

Bi lagunek, zur eta lur beraiekin erretzeari uko egin ziolako, galdetu zioten:

—Zer ba, Karlos?

Orduan iritsi zen hainbeste desiratu nuen unea. Istant hartan, nire ametsetako bat egia bihurtu zen azkenik. Tabakorik gabe aske bizitzeko ilusioz eta grinaz beterik, guztiok aho batez erantzun genuen:



Ezeta kito!



End



Babesleak:

